

Ikerketa artikuluak

Artículos de investigación

Articles de recherche

Research articles

Antzerkiaren bitartez adierazkortasun-baliabideak ikasteko proposamen didaktikoa

Una propuesta didáctica para aprender los recursos
de expresividad a través del teatro

Une proposition didactique pour apprendre les
ressources d'expressivité à travers du théâtre

A didactic proposal to learn the expressive resources
through theater

AZKARATE ETXEBERRIA, Ines Marguerite
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)
inesazarate1@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.327>

Jasotze-data: 2025/10/24

Behin-behineko onartze-data: 2026/01/26

Behin-betiko onartze-data: 2026/03/18

Iruñeko egoera soziolinguistikoa gazteen euskararen erabilera apalean islatzen da, eta gazteek batere adierazkorra ez den euskara darabilte. Testuinguru horretan, Bigarren Hezkuntzan lantzeko proposamen didaktiko bat eratu da. Horretarako, alde batetik, kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak aintzat hartu dira, hizkuntza manipulatzeko gaitasuna garatzeko, eta, bestetik, antzerkia izango da erregistroen ezaugarrietan murgiltzeko oinarria.

Gako-hitzak: Bigarren Hezkuntza, adierazkortasun baliabideak, hizkuntza bizipenak, kontzientzia metalinguistikoa, antzerkia.

La situación sociolingüística de Pamplona se ve reflejada en el poco uso que hacen los y las jóvenes del euskera y, por ello, el euskera que hablan es muy poco expresivo. Es en este contexto en el que se ha planteado una propuesta didáctica. Para estructurar la propuesta, por un lado, se han tenido en cuenta aportaciones sobre la conciencia metalingüística, enfocadas a desarrollar la capacidad de manipular el lenguaje. Por otro lado, el teatro ha sido la base para sumergirse en las de los diferentes registros.

Palabras clave: Educación Secundaria, recursos de expresividad, vivencias del lenguaje, conciencia metalingüística, teatro.

La situation sociolinguistique de Pampelune reflète le peu d'usage que font les jeunes de l'euskera, et c'est pourquoi l'euskera qu'ils utilisent est peu expressif. C'est dans ce contexte qu'a été faite une proposition didactique. Pour structurer cette proposition didactique, d'une part, des apports sur la conscience métalinguistique ont été pris en compte pour améliorer la capacité de manipuler le langage. Et, en outre, le théâtre sera la base pour approfondir dans les caractéristiques propres du langage formel et informel.

Mots-clés: secondaire, ressources d'expressivité, expériences de la langue, conscience métalinguistique, théâtre.

The sociolinguistic situation of Pamplona is reflected in the limited use that young people make of Basque, which results in a form of Basque that tends to lack expressiveness. It is in this context that a didactic proposal has been put forward. In structuring the proposal, on the one hand, contributions on metalinguistic awareness have been considered, aimed at developing students' ability to manipulate language. On the other hand, theatre has been the main tool for exploring the features of formal and informal language.

Keywords: secondary education; expressive resources; language experiences; metalinguistic awareness; theatre.

AZKARATE, I.M. (2026). «A didactic proposal to learn the expressive resources through theater», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 11-46.

1. Sarrera
 2. Oinarri teorikoa
 - 2.1 Egoera soziolinguistikoa
 - 2.2 Hizkuntza-hautuak eta naturaltasuna
 - 2.3 Gazte hizkerak eta erabilera
 - 2.4 Kontzientzia metalinguistikoa
 - 2.5 Antzerkia hezkuntzan
 3. Proposamen didaktikoa
 - 3.1 Testuingurua
 - 3.2 Helburuak
 - 3.2.1 Helburu orokorrak
 - 3.2.2 Helburu zehatzak
 - 3.3 Metodologia
 - 3.3.1 Ebaluazio-irizpideak
 - 3.3.2 Baliabideak
 - 3.4 Proiektuaren sekuentziazioa
 - 3.4.1 Antzerkigintzaren historia
 - 3.4.2 Estiloa, generoa eta estruktura
 - 3.4.2.1 Estiloa
 - 3.4.2.2 Generoa
 - 3.4.3 Euskal antzerkia gaur egun
 - 3.4.4 Erregistro-aldaerak eta adierazkortasun-baliabideak
 - 3.4.4.1 Erregistroak
 - 3.4.4.2 Adierazkortasun-baliabideak
 4. Emaitzak
 5. Ondorioak
- Bibliografia

1. Sarrera

Gaur egun, Iruñean, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, eta bizi duen egoera diglosikoaren ondorioz, ikasle askorentzat ikastetxea da euskaraz aritzeko espazio bakarra. Gehienek kostata erabiltzen dute eta batere adierazkorra ez den euskara darabilte. Izan ere, lagunartean eta familiako kideekin erdaraz komunikatzen dira ia beti, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo.

Erabilera apal horri aurre egitea ez da erronka batere erraza. Horregatik, hainbat ikerketak horren atzean dauden arrazoiak aztertu dituzte. Badakigu hainbat direla egoera hori baldintzatzen duten faktoreak, eta, horrenbestez, askotariko erantzun eta proposamenak behar dira. Dena den, arazoa identifikatu denez gero, gero eta gehiago dira Bigarren Hezkuntzan ahozkotasuna eta lagunarteko hizkera lantzearen gaineko ikerketak, proposamenak eta baliabideak. Alabaina, hizkera-adierazkortasunaren baliabideak eta antzerkia uztartzen dituzten proposamenak gutxi dira.

Hori dela eta, Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaien hizkera adierazkorra lantzeko burutu den proposamen didaktikoa aurkeztuko da hemen. Lehenik eta behin, Iruñerriko eta antzeko testuinguruetako egoera soziolinguistikoa laburki aztertuko da, erabilera apal horren ezaugarri nabarmenak aipatzeko. Hori aztertuta, kontzientzia metalinguistikoen ekarpenak aipatuko dira. Ondoren, antzerkia Bigarren Hezkuntzan lantzeak eskaintzen dituen aukerak azalduko dira, hizkuntzagaitasunak, ahoskera eta gorputz-adierazpena lantzeko oso tresna baliagarria baita.

Behin egoeraren ezaugarriak eta aukerak identifikatuta, proposamena bera azalduko da, eta erabilitako metodologia eta helburuak zehaztuko dira. Eta, bukatzeko, proposamenaren pretesta Iparralde DBHI ikastetxean praktikara eramandakoan eskuratutako emaitzak aipatuko dira, proiektuaren diseinuaren prozesuan gailendu diren ondorio nagusiekin batera.

2. Oinarri teorikoa

2.1 Egoera soziolinguistikoa

BAT *Soziolinguistika Aldizkarian* 2018an argitaratutako txosten batek dionez, Nafarroako euskararen ezagutzari dagokionez, biztanleen % 0-25 duten gune soziolinguistikoetan, Iruñean, adibidez, sumatu da haurtzarotik gaztarora igarotzean euskararen erabilera ahuldu eta gaztelaniara jotzeko joera areagotzen dela (Anduaga eta Kasares 2018: 73). Iruñean gertatzen dena ez da errealitate bakartua, eta, horregatik, erabileran eragiteko moduak bilatzea da euskal soziolinguistikaren ardura nagusienetako bat (Hernandez eta Santamaria 2021: 357).

Ablanedo (2023: 89) Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura irakaslearen hitzetan: «Iruñerrian euskaraz ikasteak gero eta antz handiagoa du frantses kolegio batean ikastearekin, esaterako. Eremu akademikoarekin lotzen dute, eta ideia horrek euskara kaltetzen du». Beraz, gazteen euskararen erabileran eragin ahal izateko beharrezkoa da gazteek euskara akademikoak ez diren beste eremu batzuekin lotzea edo irudikatzea.

Dena den, agerikoa da gazteen mundua ez dagoela haurren mundua bezain lotua euskararekin. Alegia, haurrentzat euskarazko kultura-eskaintza zabalagoa da gazteentzat zuzenduta dagoena baino. Izan ere, gazteen kultur erreferentziek mundu globalizatuaren eragin handiagoa dute, hala nola musikan, ikus-entzunezkoetan eta sare sozialetan.

Azken urteetan, gazteen artean, Tiktok sare sozialaren erabilera gailendu da. Ikerketa baten emaitzen arabera, Euskal Herriko Tiktok sortzaileen artean gutxi batzuek bakarrik sortzen dituzte euskarazko edukiak, «saria» apalagoa baita gaztelaniaz sortutakoarekin konparatuta (Urionaguena *et al.* 2023: 142-144).

Bestalde, euskal musikaren eskaintza gero eta handiagoa izan arren, ikus-entzunezkoei dagokienez, oraindik oso ekoizpen gutxi dago, euskal film, telesail eta antzezlanen kopurua hizkuntza hegemonikoetan sortzen direnen kopuruarekin konparatuz gero. Laburbilduz, Iruñeko gazteak gaztelaniak prestigio gehien duen errealitate soziolinguistikoan sozializatzen dira, eta

beren eguneroko erreferente kultural gehienak hizkuntza horretan mintzatzzen dira.

2.2 Hizkuntza-hautuak eta naturaltasuna

Gazteak kultura globalean erabat txertatuta eta eroso daudela azaltzen du *Argia* aldizkariak egindako elkarrizketa batean Altunak. Haren aburuz, berdin da herri txikietakoa arnasgunekoa edo ezagutza-maila baxuagoa duen hirikoa izatea; erreferentzia kulturalak denengana heltzen dira, eta hizkuntza aldetik denengan dute eragina. Horregatik, gazteen hizkuntza-hautuak ulertzeko, hizkuntza-praktika eta hizkuntza-ideologia erreferentzia kulturalen markoan kokatzea proposatzen da (Basurto 2023: 31).

Ildo beretik, Altunak eta Hernandezek (2021: 31-34) arreta jartzen dute gazteen euskara-erabilera ulertzeko haien hizkuntza-jokabidea azaldu dezaketen faktore sozialetan, bereziki, faktore soziokulturaletan. Autore horien helburua euskararekiko lotura testuinguruan kokatzea eta eragina duten kanpo-faktoreak aztertzea da. Ikerketaren emaitzak hiru ardatzen inguruan egituratzen dituzte:

- Hizkuntza-ideologia: ideien, irudikapenen eta iritzien munduari dagokien kontzeptua da, eta gure gizartean hizkuntza ulertzeko modua adierazten du. Gainera, kontzeptuak gazteek hizkuntza-politikaz edo euskalgintzaz duten iritzia jasotzen du.
- Hizkuntza-praktika: Altunak eta Hernandezek (2021: 36-38) sortutako harreman-sareen ezaugarrietan jartzen dute fokua; hots, euskarak presentzia duen gunetan edo eremuetan (ahozkoan, idatzizkoan edo bestelakoetan). Familia eta hezkuntza formala dira hizkuntza-praktiken eremu nagusiak, eremu horietan araututa eta nahiko finkatuta baitago hizkuntza-praktika. Hala ere, aipatzekoa da badaudela «familia euskaldunetako gazteak etxetik kanpo gaztelaniaz baino mintzo ez direnak, eta, alderantziz, familia ez-euskaldunetan hazi, eta euskaraz aritzeko hautua egin dutenak» (Altuna eta Hernandez 2021: 37). Horrek esan nahi du eskola eta familia ez direla aski euskararen erabilerari eusteko. Lagun artean eta testuinguru zabalean

(auzoa, herria edo erreferentziako beste taldeak) euskarak duen presentziaren eragina aski garrantzitsua da. Gainera, ikerlariak gogorazten dute norbanakoak ahal duen moduan kudeatzen duela bere errealitatea eta hizkuntza-ideologiak hizkuntza-praktikan eragin nabaria duela.

— Hizkuntza-bizipenak: emozioei dagokien kontzeptua da. Alegia, sentitutako eta performatutako erabilerari¹ egiten dio erreferentzia. Hemen «zer hizkuntza naiz?», «zer hizkuntza daukat?» eta «zer hizkuntza egiten dut?» dira aztergaiak. Kontzeptuak gazteen identitatea eraikitzean hizkuntzak hartzen duen tokia adierazten du. Egungo egoera argitu nahian, ikerlariak askotariko testigantzak eta bizipenak jaso zituzten, eta erantzun guztiak hiru multzotan sailkatu zituzten (Altuena eta Hernandez 2021: 40):

1. Euskararekiko lotura sendoa duten hiztunak. Hizkuntzaren egoerarekiko kontzientzia dute, kezka eta ardura adierazten dute, baina egunerokoan muga eta oztopo ugari aurkitzen dituzte.
2. Azaleko lotura duten hiztunak. Nabarmentzekoa da ospakizunekin, jai-giroarekin eta talde-identitatearekin lotzen dutela hizkuntza. Horien parte izan nahiak aktibatzen ditu egoera berezietan euskaraz egitera.
3. Euskara harremanekin erabat lotzen duten hiztunak. Azken kasu horretan, hizkuntza ez da agertzen pertsonen alderdi intimoari lotuta, ez eta ospakizun testuinguruan ere. Batez ere harremanen sarean kokatzen dute hizkuntza, eta nabarmena da nola batzuetan hizkuntza-egoerak kudeatzea deserosoa eta nekagarria zaien.

Hori guztia kontuan edukiko da hizkera adierazkorraren baliaabideak ikasgelan lantzen diren unean eta, oro har, ahozkoa lantzen duten proposamen didaktikoak lantzean, eta, horrenbestez, hizkuntzen egoeren eta hiztu-

¹ Hemen autoreak hizkuntzaren dimentsio subjektiboaren ertz bati egiten dio erreferentzia. Hots, ekintzen (performance) eta emozioen arteko loturari. Hortaz, identitate performatiboaren gakoa gizabanakoen inplikazio aktiboa da (Hernandez 2016: 186-187).

nen gaineko hausnarketak eragingo dira; alegia, euskara erabiltzeko hau-tuaren eta arrazoen gainekoak.

Horrekin batera, azpimarratzekoa da orain arte euskalduntze-prozesua-ren erdigunean egon den hiztun natiboaren papera. Ikerlariek azaldu dute-nez, benetakotasunaren ideia barra-barra dabil gazteen ahotan eta hizkun-tza ideologia tradizionalarekin apurtzeko zailtasunak hauteman dituzte: «hizkuntzaren patua naturalizazio prozesuei lotuta agertzen zaigu [...] fami-liaren, eta zenbait kasutan, gertuko komunitatearen transmisioari lotuta» (Hernandez eta Santamaria 2021: 355). Naturaltasun nozioak hitz-jarioa edo modu arin eta errazean aritzeko joera adierazten du, eta, ikerketan parte hartu zuten elkarrizketatuek esandakoaren arabera, gazteek euskara modu naturalean erabiltzen dute edo erabil dezakete (Altuna eta Hernan-dez 2021: 42):

1. Familian ikasi eta hitz egiten dutelako beti edo ia beti. Hots, hiztun natiboaren ideala txikitari euskara familian jaso duen hiztuna da.
2. Testuinguru edo herri oso euskaldun batean bizi direlako.
3. Gaitasun handia eta jariorako erraztasuna dutelako.
4. Euskararen «marka»² ezartzeko aukerarik ez dagoelako. Hots, euskarak ez duelako jasaten testuinguru erdaldunetan duen marka soziala.

Erabilera apalaren atzean dagoen beste arrazoi bat modu naturalean hitz egiteko gaitasunik eza da. Komenigarria litzateke ikasleei helaraztea natu-raltasun edo benetakotasun nozioen esanahia eta ideia horiek ezkututzen dutena, eta hizkuntza-ideologiaren gainean hausnartzera bultzatzea. Alegia, komeni da ikasleek hizkuntzen egoerez eta egoera horien bilakaera ez-naturalez jabetzea, eta horren barnean, komunitateak euskalduntzeko edo euskarari eusteko egin dituen eta egiten dituen ahaleginak zein diren eta izan diren erakustea.

² Douglassen teoriari jarraikiz, zenbait testuingurutan edo zenbait egoeratan, euskara orban bat izan daiteke, hizkuntza-ordena kolokan jartzen duen orbana. Horregatik markaren pisua jaso dezake hiztunak, eta horregatik sortzen da orban hori desagerrarazi eta ordenara itzultzeko presioa. Hau da, berriz gaztelaniara jotzeko (Douglas apud Altuna eta Hernandez 2021: 42).

Izan ere, gizarte fenomenoen naturalizazioak gizartean dauden botere-harremanak, desorekak eta parekotasunik ezak ezkututzen ditu (Altuna eta Hernandez 2021: 43). Inertzia eta naturalizazioa hertsiki lotuta dauden fenomenoak dira, eta, horregatik, beharrezkoa dugu lehen baino lehen ikasleei hausnarketa soziolinguistiko hori hurbiltzea, naturala den inertzia horri aurre egiten has daitezen. Laburbilduz, horrelako proposamen didaktiko batean helarazi beharreko mezua hau da: euskara adierazkorra familiatik kanpo ikas daiteke, erabiliz gero.

2.3 Gazte hizkerak eta erabilera

Gaur egun, gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko adina. Amonarrizek (2008) dio *gazte hizkeraz* baino *gazte hizkerez* hitz egin behar dugula. Denok hauteman dezakegu Internetek eta telefoniaren garapenak pertsonen arteko harremanetan izugarritzko eragina izan dutela. Nabarmenak dira bat-bateko mezularitzaren eta sare sozialen erabilera orokortua dela-eta maila idatzian gertatu diren aldaketak.

Oro har, gazteen hizkeretan ohikoa da adierazkortasuna eta ekonomia bilatzea (Amonarriz 2008: 169). Gainera, hizkuntza hegemonikoeek euskararen eragin handia dutela ukaezina da. Hegoaldean, oso hedatua dago adierazkortasunaren bila gaztelaniara jotzeko joera. Adibidez, arnasmuneetan hiztunen artean kode-aldaketa edo kode-alternantzia (KA) erabiltzea oso ohikoa da, eta hizkuntzaren ezagutzatik haratago doan fenomeno dela ondorioztatu da (Igartzabal 2014: 244). Horren ondorioz, testuinguru ezberdinetan *euskañolaren* fenomeno dugu.

Iruñeko testuingurura itzulita, gazte askok ez dutenez euskara etxean jaso ez dituzte hizkuntzak dituen adierazkortasun-baliabideak ezagutzen. Ildo horretan, Ablanedok (2023: 89) honela dio: «kasu askotan ez dituzte euskararen berezko baliabideak ezagutzen, ez dizkiegu erakusten, eta ez dituzte inon entzuten». Hala, D ereduko ikastetxeetan gaztelera da gazteen artean gehien erabiltzen den hizkuntza, eta batzuentzat *euskañola* da euskarari eusteko aukera bakarra. Ikasgelan, ikasle batzuk irakaslearekin euskaraz min-

tzatzen direnean, kode-alternantzia eta kalko ugari erabiltzen dituzte, esan nahi dutena euskaraz adierazi ahal izateko.

Ikasleen euskara-mailari eta ezagutzari dagokionez, komeni da euskara etxean jaso duenari etxean ikasitako euskara estimatzen irakastea, eta euskara etxetik ez dakarren horri euskararen lagunarteko eta familiarterako ereduak ematea (Euskaltzaindia 2008).

Laburbilduz, askotariko ereduak eskaini eta ahozkoa modu sistematikoa³ lantzeko premia dago, ikasleak erregistro-aldaeretan trebatzeko eta haien hizkuntza-bizipenak areagotzeko. Kontzeptuak abstraktua dirudien arren, lan honetan euskararen erabilera sentituaren eta performatuaren ideari eutsiko zaio, ikasleen parte-hartzea eta sormen-gaitasuna erdigunean ezarriarik. Aurrerago azalduko den moduan, antzerkia izanen da aurrekoaren guztiaren ardatz.

Bestalde, Quintanillak (2014: 88) euskararen erabileraren kontzeptuari heltzen dio eta helduen esperientzian oinarrituta egon dela azpimarratzen du. Horrekin batera, gogorarazten du gazteen artean euskararen erabilera murriztagoa delako ideia arras orokortua dagoela. Soraluzeko (Gipuzkoako) gazteekin egindako ikerketa kualitatiboen bidez, bertako gazteek hizkuntzarekin eta, batez ere, euskarekin daukaten harremana aztertu ondoren, garrantzitsua litzateke hizkuntza hegemoniaren kontzeptuan sakontzea, egunerokoan sortzen diren dinamikak hobeki ulertzeko eta euskararen erabilera modu esanguratsuan eragiteko.

2.4 Kontzientzia metalinguistikoa

Arestian aipatu bezala, Iruñeko ikasle askok euskara bakarrik edo gehienbat ikastetxean jasotzen dute eta, orokorrean, bertan adierazkortasun-baliabideak ezagutzeko aukerak eskasak dira. Zentzu horretan, interesga-

³ Olasagarrek (2023: 11) Bigarren Hezkuntzan ahozkoa lanaren sistematizazioa falta dela aitortzen du. Izan ere «ikasleen ahozkoaren irteera-profilaren zehaztapena eredu errealei erreparatuta egitea falta da, eta ahozkoaren ebaluazioaren ezaugarriak eta nolakotasunak zehazteke» daudela dio.

rriak dira kontzientzia metalinguistikoaren gainean egin diren ekarpenak, hizkuntza manipulatzeko trebetasuna garatzeko hainbat estrategia didaktikoren gaineko hausnarketak proposatzen dituztelako.

Hainbat autoreren ikerlanak berrikusi ondoren, Gasparrek (2024: 651) kontzientzia metalinguistikoa «hizkuntzaren eta haren elementu formalen gainean hausnartzeko eta hizkuntza bera manipulatzeko abilezia gisa» definitzen du.

Horrenbestez, euskararen egoera soziolinguistikoa eta tokian tokiko errealitateak aintzat hartu behar dira Bigarren Hezkuntzan kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak praktikara eramateko orduan. Hots, erregistro informala egunerokoan erabiltzen bada, ikasleek hizkuntza manipulatzeko gaitasuna izango dute, eta adierazkortasun-baliabideetan arakatzeko eta sakontzeko bideak eskaini beharko zaizkie.

Baina gerta daiteke euskara familiako testuinguruan ikasi ez izana eta erregistro formala izatea egunerokoan erabiltzen den erregistro bakarra. Kasu horretan, aski egokia izango da kontzientzia metalinguistikoaren teoriak egiten duen ekarpena, proposamen didaktikoa planteatzeko orduan adierazkortasun-baliabideen ikaskuntza kontzientea bultzatzen duelako (Gaspar 2024: 656). Hori dela eta, eratu den proposamen didaktikoan kontzientzia metalinguistikoak barne hartzen dituen kontzientzia fonologikoaren, morfologikoaren eta pragmatikoaren lanketa teoria eta ariketa batzuen bitartez bultzatuko da.

Adibidez, palatalizazioa lantzerakoan, kontzientzia fonologikoak adierazten duen unitate fonologikoak (fonemak eta silabak) manipulatzeko eta horien gainean hausnartzeko trebetasuna bultzatuko da. Horretarako, hainbat adibide, azalpen eta ariketaren bitartez, ikasleak hizkera informala- ren aldaera fonologikoez (adibidez, hipokoristikoan erabileraz) jabetu ahalko dira. Modu horretan, hainbat hotsen aldaera identifikatzen ikasiko dute, gero berek hitzen hotsak manipulatzeko gaitasuna gara dezaten.

Hizkera propioa sortzeko (lagunarteko hizkera eta argota) kontzientzia morfologikoaren garapena garrantzitsua da, hitzen morfologia eta, bereziki, hizkera adierazkorrean dauden (balia)bideak ikasteko eta horiekin treba-

tzeko. Horien adibide dira hitzak laburtzeko joera, hitzen errepikapenak edo biraoen egitura morfologikoa.

Hirugarrenik, kontzientzia pragmatikoaren garapena bultzatuko da. Horretarako hainbat euskal antzezlan, telesail eta pelikula landuko dira modu inplizituan dauden arau sozialen, helburuen eta komunikazioaren efektuen gainean hausnartzeko. Horrela, hizkuntzaren erregistro-aldaeren ezaugarriak testuinguruan arabera kokatzen trebatuko dira eta beren proiektuan landuko duten antzezlanak moldatzen ikasiko dute komunikazioa ulergarria izan dadin.

Laburbilduz, Iruñeko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz, kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak interesgarriak dira antzerki-proiektu batean hizkera informalkoaren adierazkortasun-baliabideak arakatzeko eta, gero, baliabide horiek erabiltzen ikasteko.

2.5 Antzerkia hezkuntzan

Bigarren Hezkuntzan Euskara eta Literatura ikasgaien antzerkia lantzeko aukerei erreparatuz gero, 71/2022 Foru Dekretuan jasotzen diren ikaskuntza-egoeren planteamenduak bat datoz DBHko 4. mailako Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaien antzerki-proiektu bat garatzearekin. Izan ere, curriculumean berriak diren ikaskuntza-egoerak tresna beharrezkoak dira oinarrizko gaitasunak lantzeko eta XXI. mendeko erronkei modu esanguratsuan erantzuteko. Beraz, ezagutzak eskuratzeari baino gaitasunak garatzeari ematen dio garrantzi handiagoa curriculum berriak. Alegia, diziplinarteko proposamen kontestualizatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak planteatzea eta sortzea eskatzen du.

Halaber, curriculumak ikasleak gizarte-eragile gero eta autonomoagoak izatea du helburu, eta hori izanen da proposamen didaktiko honen xedetakoa bat. Hots, elkarlanean eta modu autonomoan aritzen ikastea antzezlan interesgarriak taulartzeko. Ebaluazio irizpideek proiektuan zehar landutako gaitasunen garapena nolakoa izan den kontuan hartuko dute.

Antzerkia nerabeekin lantzeak aukera asko ematen ditu: besteak beste, ahozkotasuna eta ahoskera hobetzea eta erregistroen aldaerez jabetzea. Marinek dio (2016: 476) antzerkiak sormena, ahozko komunikazioa eta gorputz-adierazpena lantzeko aukera emateaz gain, gazteak dibertitzeko proposamen paregabea dela. Ildo beretik, Einesek eta Mantovanik (2018) antzerkia gazteak engaiatzeko eta parte hartzeko aukera arras egokia dela diote. Antzerki ariketek, dibertigarriak izateaz gain, sormena eta berezko komunikazioa bultzatzen dute, eta, gainera, etorkizuneko bizipen kulturalen oinarritzat har daitezke (Eines eta Mantovani 2018: 18).

Marinek antzezlan ugaritan parte hartu du, itzultzaile eta zuzendari laguntzaile lanetan. Bere aburuz, ahoskera landu, ikasi eta irakatsi daiteke. Hala ere, eskolan eta, oro har irakaskuntzan, ahoskera eta prosodia oso gutxi lantzen dira, eta, horrenbestez, irakasleek askotan ez dute hori ebaluatzeko irizpiderik (Marin 2016). Marinek ikastetxean antzerkigintzan murgiltzen hasteko honako proposamena egiten du:

Errealitatetik abiatuta (idatzitik, alegia), zubiak eraikitzea paperaren eta ahozkoaren artean, eta horretarako zer hoberik ahots gorako irakurketarekin hastea baino. Ibilbidearen lehen pausoa da. Fase honetan oso garrantzitsua da testu onekin lan egitea, ikasleak aukera izan dezan, hitz eta mezu egokiak asmatzen ibili gabe, paperari ahotsa jartzeko, hitz ederrak barru-barruan sentitu eta grabatzeko; haren lan bakarra testua musika bihurtzea da (Marin 2016: 471).

Bestalde, irakasleak ikastetxean hori lantzeko plangintza falta dutela adierazten du eta norberaren esku geratzen dela horrelako proiektu bat antolatzea eta aurrera eramatea.

Urteetan Donibane Garaziko (Nafarroa Beherea) gazteak antzerkian engaiatu dituen Antton Lukuk (1999: 299) gogorarazten du antzerkia Euskal Herrian literatura-generoen artean gutxien jorratutakoa dela eta hizkuntzaren borroka egiteko gune aproposena dela. Horrez gain, gazteekin urteetan antzerkia sortzen ibilia den irakasleak antzerkiaren dimentsio poetikoa azpimarratzen du, eta, bereziki, euskaraz sor daitezkeen irudiak nabarmentzen ditu. Biziki interesgarriak dira teatrogilearen ekarpenak benetako teatroaz mintzatzen denean. Hots, bere iritziz, benetako antzerkia inpaktua,

sorpresa, tabu hauste, errebelazio, edo atxikimendua eragiten duen antzerkia da (Luku apud Valverde 2013: 891-892).

Etxeberriaren ustez (Etxeberria apud Goikoetxea 2023: 58), garrantzitsuena espiritu kritikoa garatzea da. Hau da, ikasleei ikusten dutenaren eta hunkitzen dituenaren ganean gogoeta eragitea. Proposamen didaktikoan lehendabiziko atalean antzerkiaren historiari eta, bereziki, euskal antzerki-gintzari begirada bat eskainiko zaio. Horri dagokionez, Piarres Larzabal apezaren idazlanak aipatzea beharrezkoa da. Echeverriak (2016) idazleari eskainitako ikerketan honela dio:

Gutxiespena jasan duen hizkuntzan idaztea, une batzuetan, hautu formalak izan zen. Kultura nagusiaren ondoan, hartatik elikatuz, literatura berri bat sortzen aritu zen Larzabal. Bere lanak ertz asko ditu, eta ez da lan honen funtsa horretan sakontzea. Baina esan beharra dago idazlearen iritziz antzerkia memoria zaintzeko tresna egokiena dela (Echeverria 2006: 217).

Zentzu horretan, interesgarria litzateke ikaskuntza-egoera Historia ikasgaiarekin partekatzea eta antzerkiaren bitartez memoria historikoa lantzen duen antzezlanak lantzea. Halere, proposamen didaktiko honek helburu xumeagoa du: ikasleak adierazkortasun-baliabideekin trebatzea. Goenagaren antzerki-gida (2021) oinarri izango da, bertan proposatzen diren antzerki-generoan murgiltzeko ariketak DBHko 4. mailan lantzeko egingarriak baitira. Goenagaren ustez (2021: 121), antzerkia baliabide hezigarri indartsua da ahozkotatasuna, adierazkortasuna, balioak eta sormena lantzeko. Horrez gain, ikasleek dituzten kezken ganean hausnartzeko espazio paregabea eskaintzen du, baita umorea jorratzeko eta ikasleen eguneroko arazoak lantzen laguntzeko ere.

Dena den, kontuan izan behar da antzezlanak bideratzea ez dela ataza erraza antzerkian modu profesionalean aritu ez garen irakasleontzat, eta, horretarako, profesionalen laguntza beharrezkoa izango dela.

Bukatzeko, beharrezkoa litzateke antzerki-generoa ikasleei gehiago gerturatzea eta ezagutaraztea, eta zirrara eragin dezakeen antzerki-ikuskizun batera eramatea. Modu horretan, ikasleen euskal kultur erreferentziak eta bizipenak areagotuko lirateke.

3. Proposamen didaktikoa

3.1 Testuingurua

Iparralde DBHI ikastetxea Iruñeko Sanduzelai auzoan dago, espazioan tren geltokiak eta Arga ibaiak mugatzen dute, eta honako auzoen ondoan dago: Buztintxuri, Arrotxapea eta Donibane. Ikasle gehienak Sanduzelai eta Buztintxuri auzoetatik datoz, eta baita Oltzatic, Itza Zendeatik, Etxauribarretik eta Ollarango herrietatik ere, besteak beste.

Hizkuntza-ohiturei dagokienez, ikasleen arteko solasaldietan gehien entzuten den hizkuntza gaztelania da (% 98,1ek aitortzen du gaztelaniaz aritzen dela lagunekin). Ikastetxean egin zen azken galdeketa arabera, ikasleen % 4,7k bakarrik aitortzen du lagunekin euskara erabiltzen duela. Euskara-mailari dagokionez, % 31,6k maila altua duela uste du, % 71,6k ertaina, eta % 4,1ek baxua. Gaztelaniaz, berriz, % 83,4k uste du maila altua duela, eta % 21,6k ertaina (Iparraldeko Hizkuntza Proiektua).

Proposamen didaktikoaren abiapuntua Bigarren Hezkuntzako Irakasle-tzako unibertsitate-masterreko praktikaldian zehar hizkera adierazkorra lantzeko diseinatutako hainbat saio izan da. DBHko 3. mailako bi talderekin aritu nintzen, 22 eta 20 ikaslekoak. Ikasle batek baino gehiagok euskaraz hitz egitera bultzatzen zituen besteak. 22 ikasleko taldearekin osotara 6 saio eman nituen, praktikaldiko esku-hartzea barne.

Euskararen erabilerari dagokionez, ikastetxean egindako galdetegiaren emaitzek ongi islatzen dute bi taldeen hizkuntza-ohitura: haien artean komunikatzeko gehien erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da. Euskaraz mintzatzen direnean, batzuetan euskara zuzena darabilte. Halere, kode-alternantziak maiz erabiltzen dituzte, eta kalko ugari ere bai.

Bi taldeetan beren familien euskararen ezagutza-mailari buruz galde-tzean, talde bakoitzeko lau edo bost ikaslek adierazi zuten gurasoetako batek euskaraz hitz egiten duela.

Proposamen didaktikoaren diseinua garatu ahala, DBHko 4. mailan lantzeko proposagoa dela ondorioztatu da, DBHko 1., 2. eta 3. mailetakoko ikasleekin ahots gorako irakurketa ongi lantzen bada.

3.2 Helburuak

3.2.1 Helburu orokorrak

1. Antzerkigintzaren gaineko ikuspuntu kritikoa garatzen hastea
2. Antzerkigintzarekiko kuriositatea edo atxikimendua sortzea
3. Elkarlanean aritzeko gaitasuna hobetzea
4. Euskal erreferenteak ezagutaraztea

3.2.2 Helburu zehatzak

1. Antzerki-gidoiaren egitura ezagutzea
2. Antzerki-gidoiak komunikazio esanguratsua lortzeko moldatzen ikastea
3. Erregistro informalararen eta formalaren ezaugarriak ezagutzea eta testuingurura egokitzen ikastea
4. Euskarak dituen adierazkortasun-baliabideak ezagutzea eta horietan arakatzeko bideak ezagutzea
5. Antzezlanen sorkuntza-prozesuaren urratsetan trebatzea eta plangintza bat aurrera eramaten ikastea
6. Gorputz-adierazpenean eta ahozkotasanak barne hartzen dituen trebetasunak lantzea eta garatzea
7. Euskaraz mintzatzen gozatzea

3.3 Metodologia

Diseinatutako proiektuan helburuak zenbateraino lortu diren aztertzeko, pretest baten eta postest baten arteko alderaketa egingo da. Hasierako pretestak ikasleen alde aurreko gaitasunak eta ezagutzak zein diren ikusteko balioko du. Adierazkortasun-baliabideen ezagutza ariketa batzuen bitartez aztertuko da, eta antzerki-gidoi labur bat moldatu eta antzeztu beharko dute taldeka.

Horren ondoren, proiektuaren sekuentziazioan zehaztuko den proposamen didaktikoa landuko da eta atal praktikoa aurrera eramateko antzerki-gile baten laguntza beharrezkoa izanen da.

Postestaren bidez antzezlaren taularatzea baloratzeaz gain, antzezlaren moldaketa idatzia jasoko da. Gainera, ikaskideek aurkeztutako antzezlaren iruzkina egin beharko dute banaka. Eta, bukatzeko, taldearen antolakuntza eta taldekideen lana baloratuko da, galdetegi baten bitartez.

Proposamen didaktikoaren muinean antzezlana taularatzea dago. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzarekin bat (POI), ikasleen parte-hartze aktiboa eta interesa pizteko aukeratu da metodologia hori. Ildo beretik, metodologia komunikatiboa lehenetsiko da, gaitasun komunikatiboa garatzea baita proposamen honen funtsa. Modu berean, ikaslearen ikasteko autonomia eta lan kooperatiboa bultzatuko dira, hizkuntzaren alderdi sozio-kulturalari erreparatuta.

Ikasleek proiektuaren sekuentziazioa jarrai dezaten, txosten bat pres-tatuko da. Bertan antzerkiaren historia, erabiliko diren baliabideak, ebaluazio-irizpideak eta proiektuaren bestelako xehetasunak adieraziko zaizkie.

Aukera izanez gero, beste herri zein hiri batzuetako ikasleekin trukeak egingo dira, ikasleek beste eremu geografiko batzuetako adierazkortasun-baliabideak ezagutzeko aukera izan dezaten. Truke horiek gutunen edo posta elektronikoaren bidez egingo dira.

3.3.1 Ebaluazio-irizpideak

Arestian aipatutako helburu zehatzak zenbateraino bete diren neurtzeko eta, aldi berean, ikasleen lana ebaluatzeko honako adierazleak erabiliko dira:

1. taula. Proposamen didaktikoa ebaluatzeko irizpideak

Irizpideak	Bikain	Oso ongi	Nahikoa	Gutxi
1. Iruzkina eta iritzi kritikoa egiteko gaitasuna	Antzezlan bat ikusi ondoren, hari buruzko iritzi kritikoa egiteko gaitasun bikaina erakusten du	Antzezlan bat ikusi ondoren, hari buruzko iritzi kritikoa egiteko gaitasun oso ona erakusten du	Antzezlan bat ikusi ondoren, hari buruzko iritzi kritikoa egiteko gaitasuna duela erakusten du, nahiz eta zailtasunak izan ideia batzuk ongi adierazteko	Antzezlan bat ikusi ondoren, ez da gai hari buruzko iritzi kritikoa modu eraginkorrean edo ulergarrian egiteko
2. Antzezlan I: erregistro-aldaerak	Erregistro-aldaerak erabiltzen dira mezua modu adierazgarrian komunikatzeko	Erregistro-aldaerak erabiltzen dira, nahiz eta akatsen bat egin	Erregistro-aldaerak erabiltzen dira, nahiz eta akatsak egin edo mezua modu adierazgarrian komunikatzeko zailtasunak izan	Ez da erregistro-aldaerarik erabiltzen edo erabiltzen direnak ez dira egokiak
3. Antzezlan II: adierazkortasun-baliabideak	Egoera komunikatiboan beharrezkoak eta egokiak diren adierazkortasun-baliabideak ederki erabiltzen dira	Egoera komunikatiboan beharrezkoak eta egokiak diren adierazkortasun-baliabideak ongi erabiltzen dira	Egoera komunikatiboan beharrezkoak diren adierazkortasun-baliabide batzuk erabiltzen dira	Ez da egoera komunikatiboan beharrezkoak diren adierazkortasun-baliabiderik erabiltzen edo erabiltzen direnak desegokiak dira

4. Antzezlana III: ahozkotasuna	Ahoskera, tonua, bolumena, erritmoa eta doinua bikainak dira	Orokorrean, erritmoa eta ahotsaren tonua onak dira, baina zenbaitetan ez du ongi ahoskatzen edo erabiltzen duen bolumena ez da entzungarria	Zenbait momentutan erritmoa ez da behar bezain arina eta bizia. Ahotsaren tonua nahiko monotonoa da edo bolumena ez da entzungarria	Ahotsaren tonua monotonoegia da eta erritmoa motela da. Ez du ongi ahoskatzen edo erabiltzen duen bolumena ez da entzungarria
5. Antzezlana IV: gorputz-adierazpena	Eskuekin egindako imintzioak, gorputzaren jarrera eta begiradaren norantza aparteak dira	Orokorrean, eskuekin egindako imintzioak, gorputzaren jarrera eta begiradaren norantza onak dira. Halaber, ez die entzuleei begiratzen	Eskuekin egindako imintzioak eskasak edo gehiegizkoak direnez, aurkezpena hobetu daiteke. Gorputza oso zurrin du edota urduritasuna adierazten du	Ez dio publikoari begiratu, alboz edota bizkarra emanez aritu da
6. Antolakuntza eta talde-lana	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa bikainak izan dira	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa onak izan dira	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa nahikoak izan dira	Plangintza, entseguak, pertsonaiaren lanketa falta dira

Iturria: Norberak egina.

3.3.2 Baliabideak

- Chromebook-ak edo bestelako ordenagailuak
- Interneterako sarbidea
- Liburuak eta gidak: *Gora teloia! Antzerki gida; Antzerki. Le théâtre; Biraok. Nafarroan bilduak; Euskal Herriaren Yakintza; Literatura popular del País Vasco II*
- Antzerki testuak eskaintzen dituzten webguneak: <https://www.ganbila.eus/liburuak> eta <https://mikelmartinez.eus/teatrotestuak/euskeraz-sortuak>

- Entseguak egiteko espazio egokia
- Pertsonaiak karakterizatu eta janzteko makillajea eta arropa

3.4 Proiektuaren sekuentziak

2. taula. Proiektu didaktikoaren atalen sekuentziak

Atala	Edukiak
Antzerkigintzaren historia	Grezia klasikoa Erromatarrak Antzerkiaren gorakada XVI.-XVII. mendeetan Euskal Pizkundera Antzerkia frankismoan eta gerra-garaiaren ondorioak
Estiloa, generoa eta estruktura	Estiloa: mimoa, sudur gorria - pailazoa, maskara, txotxongiloak eta testu antzerkia Generoa: tragedia, komedia eta drama Estruktura: planteamendua, korapiloa eta amaiera
Euskal antzerkigintza gaur egun	Prekariatatea eta prestigioa
Erregistro-aldaerak eta adierazkortasun-baliabideak	Erregistroak Adierazkortasun-baliabideak
Antzezlana sortzea	Antzezlana bat aukeratu eta moldatu (adierazkortasun-baliabideak eta erregistroak moldatu) Taldea-lana bideratu: ardurak banatu Antzezlana sortu: entseguak antolatuz, pertsonaiak landu

Iturria: Norberak egin *Gora teloia! ANTZERKI GIDA* (Goenaga 2021) eta *Antzerkia. Le Théâtre* (Goenaga eta Barea 2021) lanetan oinarrituta.

3.4.1 Antzerkigintzaren historia

- Grezia klasikoan antzerkiak eta bere inguruan antolatzen ziren jaialdiek eta festek sekulako garrantzia izan zuten. Jainko-jainkosen omezez egiten ziren antzerki-emanaldiak, eta agintariak eta herri osoak joaten ziren antzerki-lehiaketetara (Goenaga 2021). Dionisia izeneko antzerki-jaialdia instituzionalizatu zen (Goenaga 2021). Bertan, Dioniso jainkoa ohoratzen zen. Tragedia, komedia eta antzerki satirikoa izan ziren han sortu ziren hiru drama-generoak. Atenasek bere kolonia ugarietara esportatu zuen antzerki-jaialdia. Autore tragikoen artean, Sofokles, Eskilo eta Euripides dira garrantzitsuenak. Autore komikoen artean garrantzitsuena Aristofanes da. Aipagarria da maskararen erabilera, erritu eta ospakizunetan erabiltzen zena. Azterna gehienak K.a. v. mendeko ontzietan egindako margolanetik datoz, hala nola zuhaitz batetik zintzilikatuta ageri den jainkoaren maskara ageri duena (Goenaga 2021: 13).
- Erromatarrek kutsu erlijiosoa kendu eta jendearen egunerokotasunera hurbildu zuten antzerkia. Pertsonaiak jainko-jainkosa edo erregeerreginak izan beharrean, zerbitzariak eta morroiak izaten ziren. Erromatarren tradizioan, greziarrengandik hartua, antzerki literarioa pertsonaia bat nola sentitzen zen «ikustea» ahalbidetzen zuten aurpegi-adierazpen oso markatuak zituzten maskarak erabiltzen zituzten, eta gizonak bakarrik osatutako taldeek antzezten zuten. Batzuetan, maskara horiek paper jakin baterako berariaz eginak izaten ziren eta aktore batek hainbat paper antzeztu zitzakeen, maskara aldatuta. Emakumeen paperak gizon trabestituek antzezten zituzten.
- XVI.-XVII. mendeetan antzerkiaren gorakada ikaragarria izan zen Europa osoan: Espainian, «Urrezko Mendea»; Erresuma Batuan, antzerki isabelinoa, Shakespearerena, besteak beste; Italian, Comedia dell'Arte, inprobisazio antzerki barregarria; eta, Frantzian, Molière antzerkigile ospetsua. Horiek dira garai hartan antzerkiak izan zuen garrantziaren adibide. Mende horietan antzerkiak utzi zuen arrastoa aipagarria da, bai antzokietan, bai antzezteko moduan, eta baita testuetan ere. Horrekin batera, herrietan, antzerki herrikoiak, erlijiosoak eta festetako dantza eta komeriak egiten jarraitzen zuten (Goenaga 2021).

Lehen pastorala 1634an erregistratu zen Atharratzen. Pastoralak ospakizun handiak izaten ziren, herriko plaza zabalean egiten ziren eta herritar askok hartzen zuten parte. Antzezlanak bertsoan kantatzen ziren, eta musika zein dantzek garrantzi handia zuten (Goenaga eta Barea 2021). Pastoraletan bi alderen lehia taularatzen da: alde ona (kristauak) eta alde txarra (turkoak). Beti alde onak irabazten du. Eszenatokian hiru ate daude: onak ezkerreko ate urdinetik ateratzen dira, turkoak eskuineko ate gorritik, eta deabrua goiko aldean dagoen ate zuri txiki batetik agertzen da. Musikariak ere eszenatokian bertan egoten dira. Hasieran, pastoraletan gizonak bakarrik aritzen ziren, baina XX. mendearen erditik aurrera emakumeek ere parte hartzen dute. Lehen gaitegi nagusia erlijiosoa zen, santuen bizitzak eta antzeko gaiak lantzen baitziren. Gaur egun, ordea, pastoralen gaiak gaurkotasanari lotuago daude: gai sozial eta politikoak jorratzen dira, gaur egungo errealitateari erreparatuta (Goenaga eta Barea 2021).

— Euskal Pizkundea mugimendu kultural eta politiko euskaltzale emankorra izan zen.

XIX. mendeko antzerkiaren erreferente nagusia Marcelino Soroa dugu [...] Soroaren euskal antzerkiarekin batera, urte askoan bizirik iraun duen eztabaida azaleratu zen, hau da, dibertimendu hutseko tokiko antzerkiaren eta unibertsalaren, hots, sakonagoa den antzerkiaren artekoa [...] edozein modutan, euskararekiko zaletasuna aldarrikatzen zen garai hartan, antzerkia egitearen arrazoi garrantzitsuenetako bat euskara sustatzea zela (Goenaga eta Barea 2021: 18-20).

Soroak antzezan asko idatzi zituen: *Gabon* (1880), frantsesetik itzulitako *Antton Kaiku* (1882), *Au ostatuba* (1884), *Alkate berriya* (1884), *Urrutiko intxaurrak* (1886) eta *Abec Istillubac!* (1889), besteak beste (Goenaga eta Barea 2021). Ildo beretik, Toribio Altzaga euskal antzerkiaren sustatzaile garrantzitsuenetakoa du. Bere taldearekin antzezan ugari taularatu zuen Donostian zein Gipuzkoako herrietan, eta euskal antzerkiarekiko zaletasuna indartzen lagundu zuen Alzagak euskal antzerkia mundura begira jarri zuen, adibidez, Shakespeareren *Macbeth* euskarara itzuli eta egokitu zuen (Goenaga eta Barea 2021).

Bestalde, Katalina Eleizegiren antzezanak ditugu. Batzuen iritziz, euskal antzerki modernoaren ama izan zen. Idatzi zituen lanek sariak eta kritika

onak jaso zituzten (Goenaga eta Barea 2021): *Garbiñe* (1917), *Loreti* (1918), *Gaine* (1929), *Yatsu* (1934). 1932an Antonio Maria Labaienek antzerki-testuen lehiaketa antolatu zuen *Antzerti* aldizkarian. Ondoren, 1934an Eusko Antzerti Eguna ospatzen hasi ziren. Ekimenak sekulako arrakasta izan zuen. Sari-banaketa San Telmo Museoan egiten zen, eta ondoren Victoria Eugenia eta Kursaal antzokietan antzerki-emanaldiak hasten ziren, eta asteetan ikusgai egoten ziren. Hiru jaialdi ospatu ziren 36ko gerra hasi aurretik (Goenaga eta Barea 2021: 22). Esan daiteke Soroak, Altzagak eta Eleizegik piztu zutela garaiko euskaldunen antzerkiarekiko zaletasuna.

- Antzerkia frankismoan eta gerra garaiazen ondorioak: frankismoak antzerkizaleak eta antzerkigileak atxilotzea ekarri zuen eta, horrekin batera, zentsura eta autozentsura testugintzan eta, oro har, sormen-prozesu guztietan. Hala, pizkundeko mugimendu kultural berritzaile eta aberatsak etena jasan zuen 36an, hegoaldeko gerra zibila hasi zenean. Frankismoak Antzerti aldizkariaren amaiera ekarri zuen, herrietako antzeztaldeak desagetea eta emakumeak oholtzetatik desagertzea ere bai (Gereñu 2018: 737).

3.4.2 Estiloa, generoa eta estruktura

3.4.2.1 ESTILOA

3. taula. Antzerki estilok

Estiloa	Azalpena
Mimoa	Hitzik gabeko antzerkia da. Gehienetan aktore bakarra izaten da, eta keinuen bidez adierazten dira egoera eta ekintza guztiak. Oso mugimendu, keinu eta imintzio garbiak eta landuak egin behar dira, kontakizuna eta pertsonaiari gertatzen zaizkion gorabeherak publikoarengana ondo iristeko, eta baita sentimendu eta emozioak azalertzeko ere. Mimo aktoreek gorputz adierazpena asko lantzen dute, hitzik gabe ikuslea gehienetan barregarriak diren egoeretan murgiltzeko.

Sudur gorria. Pailazo-clown	<p>Sudur gorria maskara guztietan txikiena dela esan ohi da. Pertsonaia berezi bat, izaera xaloarekin edo begirada biziarekin. Badira mota askotako pailazoak: azkarrak, lotsagabeak, traketsak, bihurriak edo tontoloak.</p> <p>Nork bere pailazoa du. Barrutik ateratzen den pertsonaia da, baina pertsonaia hori landu egin behar da: nola hitz egin, nola ibili, zein keinu dituen ohikoak edo, esate baterako, muturreko egoera batean zer egingo duen probatu eta zer nolako pailazoa izango den bilatu.</p>
Maskarak	<p>Historian zehar maskara antzerkiari lotuta egon den ezinbesteko tresna da. Maskara antzerki-errituaren parte da. Pertsonaiaren ezaugarriak handitzen ditu. Maskarek esker, gainera, aktoreek pertsonaia bat baino gehiago antzez ditzakete. Maskara-mota asko dago: paperez egindakoak, larruzkoak, kartoizkoak, egurrezkoak... Batzuek aurpegi osoa estaltzen dute, eta beste batzuek, berriz, aurpegi erdia edo aurpegiaren zati bat (sudurra, begiak, masailak...). Erabileraren arabera ere, maskara tankera askotakoa izan daiteke.</p> <p>Maskara janzterakoan gorputz osoak maskara horri lagundu behar dio, hau da, bere zerbitzura lan egin behar du. Alegia, kontatu edo esan nahi duguna gorputzaren jarrera eta mugimenduen bidez adieraziko dugu. Maskarak kontrola eskatzen du; mugimendu garbi eta zehatzak. Maskararen atzean aktore bat dago, pertsonaiari bizia emango diona. Aktore askorentzat, hasieran behintzat, maskara baten atzean lan egiteak balio dezake lotsa uxatzeko edo jende aurrean agertzeak ematen duen larritasunetik babesteko.</p>

Iturria: Norberak sortua Goenagaren antzerki-gidan (2021: 32-42) oinarrituta.

3.4.2.2 GENEROA

— Komediala:

- I. Gehiegizko pertsonaiak. Komeditan protagonista diren pertsonaiak muturrera eramana daude. Normalean, bizioren bat duten

eta egoera barregarri eta dibertigarriak bizi dituzten pertsonak irudikatzen dituzte.

- II. Arketipoak. Komediako pertsonaiak arketipoak ere izan ohi dira, hau da, gizartean ohikoa den bizioaren adibideak dira (zikoizkeria, pikardia, gezurra, etab.).
- III. Helburua: barrea. Argi dago komediaren ezaugarrietako bat ikusleari barre eragitea dela. Baina ez da edonolako barrea, irriaren bidez gogoeta eginarazten digun umore-mota bat baizik.
- IV. Gai sozialak. Gehienetan, komedia testuinguru soziopolitiko jakin baten barruan kokatzen da. Izan ere, pertsonaiek barre eginaraziko digute, baina bizi garen munduari buruzko salaketa-edo hausnarketa-mezu bat ere zabalduko dute.
- V. Amaiera zorionsua. Komediaren beste elementu azpimarragarrienetako bat azpigereroa gehien identifikatzen duena da. Izan ere, tragedian ez bezala, komedian amaiera zorionsuak ohikoak dira, ikusleei energia ona eta baikortasunez eta itxaropenez betetako mezua emanez.

— Drama:

Tragediaren eta komediaren gaiak biltzen dituen antzerki-mota da. Poeta klasikoek tragedia goi-mailakotzat eta komedia behekotzat hartzen zituzten, baina, humanismoaz geroztik, erdibidekoa onesten dute, eta bien ezaugarriak lotzen dituzten drama-motez hitz egiten hasi ziren, hala nola tragikomediaz, komedia eta tragediaren sintesi, bitarteko eta ondorio diren aldetik. Garatu diren drama-moten artean, drama burgesa, drama liturgikoa, drama lirikoa eta drama historikoa bereizten dira.

3.4.3 Euskal antzerkia gaur egun

Egungo euskal antzerkiak bizi dituen baldintza prekarioak agerikoak dira. Hori erakusten dute LANARTEA elkartearen Euskal Artisten Lan eta Baldintzen I. Inkesta kuantitatiboaren emaitza nagusiek (Irureta 2024). Hala-

ber, Goikoetxeak dioenez (2023), askotan ez dira antzokiak betetzen, ezjakintasun handia dago eta, ondorioz, antzerki profesionalaren bidea zaila da. Dena dela, Hegoaldeko eta Iparraldeko egoerak ez dira berdinak. Frantzian kultura gehiago balioesten da eta horren isla 80ko hamarkadan sortutako intermitentzia-sistema da:

Sistema horretan sartzeko urtebetez frogatu behar da artista edo teknikaria zarela, eta urte horretan bostehun eta zazpi ordu eman dituzula alor horretan lanean. Hori frogatuz gero, hurrengo urterako urtebeteko langabezia eskuratzen duzu. Urtebete hau pasatu ondoren berriz frogatu behar dituzu zure lan orduak, eta ordu kopuru minimo hori betez gero, jarraitu egiten du sistemak: datorren urtean langabezia soldata jasoko duzu. Sistema honetan zauden artean ezin duzu beste lanik egin erregimen orokorrean (Goikoetxea 2023: 38).

Marixe Urrutik, beste antzerki sortzaile askok bezala, antzerkia eskolan deskubritu zuen eta, «gozamen iturri izateaz gain, euskaldun berria izanik hizkuntzan trebatzeko tresna ere izan zuen». Bere ustez, Hegoaldeko erakundeek intermitentzia-sistema sortu beharko lukete kalitatezko lana segurtatzeko. Antzerki-testuak ikastearen inguruan honela dio: «oso polita da antzerkiari esker zer hizkuntza harrotasun sortzen ahal duzun» (Goikoetxea 2023: 49).

Bistakoa da mundu globaleko paradigmak kultura kontsumitzeko ohiturak aldatu dituela eta antzokietako publikoaren beherakadan eragin zuzena izan duela (Goenaga 2018). Bestalde, kultur esparrua bultzatzeko edo indartzeko interes falta dagoela nabarmentzen du Goikoetxeak (2023) antzerki munduko hainbat eragile elkarrizketatu ondoren. Azken gogoetan honela dio (235): «[...] argi esan daiteke ez dela kultur politika duin bat existitzen, eta administrazio publikoen utzikeria, interes eza edo kudeaketa kaxkarra dextente zabalduak daudela».

Egungo euskal antzerkiaren egoerari dagokionez, ikusi da prekarietatea nabarmena dela eta Hego Euskal Herriko produkzioen sorkuntza-prozesuak Iparrekoak baino askoz laburragoak direla (Goikoetxea 2023: 74).

3.4.4 Erregistro-aldakerak eta adierazkortasun-baliabideak

3.4.4.1 ERREGISTROAK

Hizkera adierazkorra lantzen hasteko Euskaltzaindiak proposatzen duen erregistroaren definizioa erabiliko da, hizkuntzen aldaeren ezaugarriak testuinguru zabalean kokatzeko. Definizio horretan erregistroa «solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien, formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkera mota» gisa ulertzen da (Euskaltzaindia 2008: 21). Gainera, erregistro bat edo beste erabiltzeko unean dauden aldagaiak hainbat dira:

- Hiztunaren jatorri geografikoa eta maila soziokulturala. Alde batetik, euskalkiak eta, bestetik, soziolektoak ditugu. Fonologia eta lexikoa izaten dira gizarte-mailaren erakuslerik ohikoenak. Gogoratu beharra dago historian zehar euskaraz herri xehea mintzatu dela eta latinez, gaskoiz, gaztelaniaz edo frantsesez jende gorenari (Zuazo 2005: 218).
- Gaiak: orokorrak eta espezifikokoak.
- Egoera komunikatiboa: formala (hizkera neutroa) ez-formala/informala (hizkera adierazkorra).
- Kanala: ahozkoa, idatzizkoa eta mistoa.
 - Erregistro formalean: hizkera neutroa erabiltzen da. Igorleak hizkuntza-baliabide egokiak hautatzen ditu, eta hizkuntza arretaz aukeratzen du. Erregistro espezializatuak izan daitezke, adibidez, tekniko-zientifikoak edo hezkuntzan erabiltzen den hizkera.
 - Erregistro informalean: hizkera adierazkorra erabiltzen da. Lagunarteko edo familiararteko komunikazioan gauzatzen da. Egitura sinpleak hautatzen dira, eta igorlea adierazkorra izaten da. Kalea, lagunartea, aisialdia dira bere espazio naturalak, eta onginahia, maitasuna, konfiantza, adiskidetasuna, harridura, haserre eta mespretxua adierazteko hizkera-mota guztiak barne hartzen ditu.

3.4.4.2 ADIERAZKORTASUN-BALIABIDEAK

Testuinguru ez-formal edo informalaren barnean, hizkera adierazkorra dugu. Mintzaira-mota horretan, hizkera neutrotik kanpo dagoen guztia sar-tzen da. Alegia, onginahi, maitasun, konfiantza, adiskidetasun, harridura, haserre, mespretxua adierazteko baliabide-mota guztiak.

4. taula. Hizkuntzaren bariazioa eta erregistroak

	Familiarra	Ez-familiarra
Fonologia	<ul style="list-style-type: none"> - Kontrakzioak - Intonazioa eta aldaera aberatsak - Ahoskera informala - Palatalizazio adierazgarriak 	<ul style="list-style-type: none"> - Berba osoak (arau fonologikoak beteaz) - Intonazio monotonoagoa - Ahoskera formala
Morfosintaxia	<ul style="list-style-type: none"> - Gramatika trinkoa - Aditz jokatugabeak - Esaldi eta molde adierazgarriak - Elipsiak - Hitz-ordenaren aldaketak - Tratamendua: hitanoa 	<ul style="list-style-type: none"> - Gramatika ugariagoa - Aditz jokatu gehiago - Molde neutroak eta formalak - Elementu gehiagoren edo guztien agerpena - Tratamendua: zuketa, beroriketa
Lexikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Mailegu gehiago - Bikote lexikoak - Eremu semantikoen muga lanbroak - Lexiko afektiboa, kortesiazko formulak, harridurak - Argota 	<ul style="list-style-type: none"> - Lexiko zehatzagoa, berezitua - Lexiko teknikoagoa - Teknolektoetako hitzak

Iturria: Euskaltzaindia (2018: 25).

Palatalizazioa

Palatalizazioa edo bustidura mingainak aho-sabaian ukitzean sortzen dituen soinuak adierazten dute. Hizkuntza gehiagok erabiltzen dute, hala nola italierak edo suedierak (Oñederra 1990: 16). Euskaraz urruntasuna, gertutasuna, zakartasuna, maitasuna, oniritzia, haserrea edo mespretxua adierazteko erabili ohi da.

Gehienetan palatalizazioa, forma hipokoristikoak (izenen txikigarriak: Ane/Añe, Haritz/Haritz, Haizea/Haizea, Martin/Martin) sortzeko erabiltzen da. Bestalde, adjektiboekin ezugarri gisa erabiltzen da: gozo/goxo, zuhur/xuhur, bizi/bixi, labur/llabur, zintzo/txintxo/ttintto, bero/bello eta abar.

Gainera, asmoaren arabera intonazio bat edo beste erabiltzen da, hau da, helarazi nahi dugunaren arabera intonazioa moldatzen dugu, adibidez, samurtasuna edo haserrea adierazteko. Hortaz, segur aski ez dugu doinu bera erabiliko «norena da txakur (politt) hori?» edo «norena da zakur (itsusi) hori?» esateko.

Errepikapenak

Hitz-errepikapenak esandakoari indarra emateko erabiltzen dira, eta hitz berriak sortzeko ere bai. Hiru motako errepikapenak daude.

Lehenengoan, adjektiboa errepikatzen da: *polit-polita da hori, gorri-gorriak dira etxean ditugun loreak, koadro eder-ederra da, txiki-txikia sentitu zen, harro-harroa da, txori hori gorri-gorria zen, xuri-xuria zen ekarri zuen xakurra.*

Bigarrenik, adberbioekin errepikapena dugu kasu anitzetan, hala nola *poz-pozik etorri zen, blai-blai eginda ailegatu ginen, neka-neka eginda etorri dira menditik.*

Hirugarrenik, zenbait hitz elkartutan eta onomatopeiatan aurkitzen ditugu: *birrinbi-barranba, birrin-birrin, bolo-bolo, duda-muda, hitz eta pitz, ihahi eta ahaha, ikusi-makusi, ipi-apa, kiskun-kaskun, plisti-plasta, tirriki-tarraka, ttapa-ttapa, ttiki-ttaka, txin-txin, txitean-pitean, zehatz-mehatz, gazi-geza, xirmi-xarma, zirimiri, zurrumurru, zalantza-malantza* eta horrelako beste asko ditugu.

Biraoak

Aipatu bezala, ikasle askok euskara ikastetxeko hizkuntza akademikotzat hartzen dute, txukuntzat eta birao gutxikotzat, baina errealitatea bestelakoa da. Izan ere, euskaraz ere iraintzeko modu asko dago. *Sakrea* edo *biraoa* honela defini daiteke «beste batzuei zuzentzen zaizkien laidozko hitzak eta esaerak dira [...] iraingarriak diren hitz eta itzuliak, nahiz denek ez duten gisa berean iraintzen» (Salaberri eta Zubiri 2007: 10).

Irain guztiak ez dira mota berekoak (Salaberri, Kamino eta Zubiri 2004: 27-117). Irain maila asko dago, haserrearen, nahiaren eta, oro har, testuinguruaren arabera. Ikasleek *Biraoak. Nafarroan bilduak* (Salaberri eta Zubiri 2007) liburua izanen dute baliabide, biraoen jatorria eta morfologia ezagutzeko eta, aurrerago, haien argot propioa sortzeko bideak emateko.

Nahiz eta zaila izan balioetan heztearen markoan gai honetan sakontzea, esan beharra dago jendeak haserretzen denean gaztelerara jotzeko joera duela, eta horrek euskararen erabilera mugatzen duela. Euskaraz ere haserretzeko gai izan behar dute ikasleek eta, hori, zeharka bada ere, antzerkiaren bitartez landu daiteke, arteak sortzen baititu pentsaerak eta emozioak adierazteko ereduak (Goikoetxea, 2023: 24).

Mailakatzea

Adjektiboaren mailak adierazteko adberbio jakin batzuk erabiltzen ditugu: *oso*, *guxtiz*, *biziki*, *nahiko*, *aski*, *samar*, *batere* eta abar.

Euskara gutxi erabiltzeagatik askotan adberbio bera erabiltzera jotzen dugu, adibidez: ezagutu berri dudan neska *oso* jatorra da. Baina, lagunartean edo testuinguru familiar batean normalean mailakatze adberbio gehiago erabiltzen dira. Modu horretan, gauza bera adierazteko adberbio ugari erabil daitezke: *aski jatorra da* / *jator askoa da* / *biziki jatorra da* / *arras jatorra da* / *gogorki jatorra da* / *lazki jatorra da* / *arrunt jatorra da* / *txit jatorra da*.

Eratorpen atzizkiak

Eratorpen atzizkiak ere egokiak dira honelakoetan eta bolo-bolo entzuten dira familian edo lagunarteko hizkeran:

Hortxe utzi ditugu berokiak / horixe erantzun nion! / hantxe egongo gara zure zain / huraxe galdu zen / banku honexetan itxaroten badugu? / beroki hura zahar(t)xeagoa da! / hauxe da nahiago dudana / geroxeago joango gara / handixkoenak behean utziko ditugu / gehienxkoenak egin ditut / azkarxeago ibil zitezkeen...

Esamoldeak eta atsotitzak

Esamoldeak ugari erabiltzen ditugu egunerokoan; balio adierazkor handia dute, eta ideiak eta egoerak laburbiltzeko tresna paregabeak dira. Hala ere, normalean ikasleek gogoratzen dituzten gehienak gaztelaniazko esamoldeak dira. Horregatik, euskaraz dauden esamolde errazenak ezagutaraztea komeni da, hala nola (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa d.g.):

Gauetz katu guztiak beltzak: Iluntasunean edo argi falta dagoenean, erraza da akatsak ezkutatzea edo ez antzematea.

Jakiteak ez du ogirik jaten: jakintzak ez du inoiz kalterik egiten.

4. Emaitzak

Proposamen didaktikoaren atal bakarra eraman zen praktikara ikasleen alde zuzeneko adierazkortasun-baliabide eta antzerkigintzaren gainean zitu zuten ezagutzak aztertzeko.

Bi taldeetako ikasleei galdetu ondoren, gehienek adierazi zuten ez direla azken urteetan antzerkiak ikustera joan. Hala ere, ikasleei gaia interesgarria egin zitzaion. Izan ere, DBHko 3. mailako lehenengo taldeko ikasleek arreta mantendu zuten saio osoan zehar, eta batzuek ezagutzen ez zituzten hitzak eta esapideak ozen eta eskatu gabe errepikatu zituzten. Laburbilduz, azalpenak adi entzun zituzten, eta adierazkortasun-baliabideekin trebatzeko

ariketetan, ikasle askok parte hartu zuten, interesa eta trebetasuna erakutsiz. DBHko 3. mailako bigarren taldean antzeko emaitzak izan ziren. Talde horretan ere azalpenak eman bitartean ikasleek arreta mantendu zuten, eta ariketak egiteko gaitasuna eta trebetasuna erakutsi zuten.

Etorkizunean, atal teoriko hori paperean soilik eskaini beharrean, euskarri digitalean ere aurkeztea aproposagoa litzateke, gaiarekiko ulermen esanguratsuagoa bermatzeko eta ikastaldeetan egoten den adimen-aniztasunari erantzuteko. Adibidez, fonologia eta morfologiaren aldaerei dagokienez, euskarri digitalean euskal antzezlanen zati esanguratsuak aukeratzea egokia izango litzateke erregistroen aldaeren ezaugarriez jabetzeko.

Pretestaren atal praktikoa talde bakarrarekin egin zen. Horretarako, hiru ikaslez osatutako taldeak egin ziren eta azalpen xume baten ondoren, taldeka antzerki-gidoi labur sortzeko eta antzezteko eskatu zitzairen. Pretest horren emaitzek islatzen dute antzerki-gidoiak sortzea eskatzea ez dela egokia eta hori landu baino lehen antzezlanak lantzea aproposagoa dela. Izan ere, ez dituzte antzerki-gidoiaren ezaugarriak ezagutzen.

Aipatu bezala, ikasle gehienek oso antzezlan gutxi ikusi dituzte; are gehiago, gehienek Lehen Hezkuntzan euskal antzezlan bat ikustera joan zirela erantzun zuten. Gehienek ez zuten argiki gogoratzen, eta orduz geroztik ez dute beste antzezlanik ikusi. Interesgarria litzateke galdetegi bat prestatzea, etorkizunean horren gaineko datuak modu sistematikoan jasotzeko.

5. Ondorioak

Oinarri teorikoan aipatu bezala, antzerkia ahozketasuna, ahoskera, gorputz-adierazpena, erregistro-aldaerak eta sormena jorratzeko tresna bizi aproposa da, baita ikasleei euskara gozabidea dela erakusteko ere.

Pretestaren atal teorikoaren emaitzek islatzen dute orokorrean DBHko 3. mailako ikasleek ez dituztela euskarak dituen adierazkortasun-baliabideak ezagutzen eta antzerkia arrotza zaiela. Adierazkortasun-baliabideei dagokienez eta kontzientzia metalinguistikoaren ekarpenak aintzat hartuz, ez dago argi proposamen didaktikoaren atal teoriko oso bat

horri eskaintzea lagungarria litzatekeen. Hots, ikasleei euskarak adierazkortasun-baliabide batzuk irakastea eta beste baliabide batzuetan arakatzeko baliabideak eskaintzea. Etorkizunean, proposamen didaktikoa praktikara eramatean, pretestaren eta postestaren arteko alderaketa egingo litzateke, atal teorikoaren egokitasuna neurtzeko eta helburuak bete diren aztertzeko.

Bestalde, pretestaren atal praktikoarekin ikusi da ikasleek antzerkigidoiak idazteko zailtasunak dituztela, laburrak badira ere. Horregatik, proposamen didaktikoaren funtsa antzerkiaren bitartez adierazkortasun-baliabideetan trebatzea izanda, euskal antzezlanak lantzen hasiko dira; eta proiektuaren muina antzezlan horiek moldatzea eta antzeztea izango da, proposamen didaktikoan ikasitako baliabideekin.

Bukatzeko, proiektua praktikan aurrera eramateko premiazkoa izanen da ikasleekin antzezlanak ikusteko ateraldiak antolatzea, beren erreferente kulturak zabaltzeko eta ikuspuntu kritikoa lantzen hasteko abiapuntua izango delako. Izan ere, proposamen didaktikoaren lehendabiziko helburu orokorrari eutsiz, antzerkigintzaren gaineko ikuspuntu kritikoa garatzea beharrezkoa izango da artearen bitartez senti eta iradoki daitekeena modu adierazgarri batean komunikatzen ikasten hasteko.

Bibliografia

71/2022 Foru Dekretua, 2022ko abuztuaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 155: 154-256.

ABLANEDO, Ane (2023). *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoaren artean: egoera eta aukera berriak*. Euskaltzaindia.

ALTUNA, Olatz eta HERNANDEZ, Jone Miren (2021). «Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 29-45.

AMONARRIZ, Kike (2018). «Gazte hizkerak - hizkera gazteak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 68: 163-189.

ANDUAGA, Eneko eta KASARES, Paula (2018). «Kale-erabilera: Nafarroako datuen irakurketa», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 65-78.

BASURTO, Asier (2023). «Euskararen auzia nerabeena baino gehiago da helduena». Jaime Altuna. *Argia*, 2023ko abenduaren 3a.

EINES, Jorge eta MANTOVANI, Alfredo (2018). *Didáctica de la dramatización*. Gedisa.

EHEVERRIA, Isabelle (2016). *Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*. Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA. (2008). *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz*. Euskaltzaindia.

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDE ZENTROA. (d.g.). «Esamoldeak eta trataerak. Bizipena nolako, esaera halako». 2026ko otsailaren 23an eguneratua. <https://eibz.educacion.navarra.es/blogak/esamoldeak/>

GANBILA.EUS. (d.g.). «Teatro testuak». <https://www.ganbila.eus/liburuak>

GASPAR, Artzai (2024). «Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikuseta bibliografiko bat», *Fontes Linguae Vasconum* 138: 349-374. <https://doi.org/10.35462/flv138.9>

GEREÑU, Idoia (2018). «Teatroaren mututzea xx. mendean: Frankismoa eta zentsuraren eragina euskal teatroaren bilakaeran», *Euskera* 63 (2): 731-763. <https://doi.org/10.59866/eia.v63i2018.98>

GOENAGA, Aizpea (2021). *Gora teloa! ANTZERKI GIDA*. Ikertze.

GOENAGA, Aizpea eta BAREA, Pedro (2021). *Antzerkia. Le théâtre*. Etxepare Euskal Institutua.

GOIKOETXEA, Maddi (2023). *Ura jaten. Antzerkia, prestigio soziala eta prekaritatea Euskal Herrian*. Susa.

HERNANDEZ, Jone Miren (2016). «Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 99: 179-195.

HERNANDEZ, Jone Miren eta SANTAMARIA, Ainara (2021). «Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak», *Fontes Linguae Vasconum* 132: 349-374. <https://doi.org/10.35462/flv132.4>

IGARTZABAL, Iñigo (2014). «Kode-alternantzia eta hizkuntza ohiturak Gabiriako bi belaunaldietan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 92-93: 229-251.

IRURETA, Onintza (2024). «Mila euroko soldata artistentzat». *Argia*, 2024ko abenduaren 20a.

LUKU, Antton (1999). «Oraingo Antzerkiaz», *Euskera* XLIV: 293-300.

MARIN, Julia (2016). «Esatearen ederra: Agertokitik ikasgelara», *Euskera* 60: 451-476. <https://doi.org/10.59866/eia.v60i2.128>

MIKEL MARTINEZ.EUS. (d.g.). «Euskeraz sortuak». <https://mikelmartinez.eus/teatrotestuak/euskeraz-sortuak>

OLASAGARRE, Yolanda (2023). *Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gaztetxoaren artean: egoera eta aukera berriak*. Euskaltzaindia.

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1990). *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots simbolismoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

QUINTANILLA, Maite (2014). «Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Sorluzen», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 92-93: 87-120.

SALABERRI, Patxi, KAMINO, Peio eta ZUBIRI, Juan Jose (2004). «Goizuetako hizkera adierazkorra: biraoak», *Fontes Linguae Vasconum* 99: 411-451. <https://doi.org/10.35462/flv99.7>

SALABERRI, Patxi eta ZUBIRI, Juan Jose (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Pamiela.

URIOANAGUENA, Mikel, FLORES, Beñat, BIDEGAIN, Eneko eta ZUBEROGOITIA, Aitor (2023). «Euskal tiktokerren edukiak eta hizkuntzaren lekua», *Euskera* 68: 117-148. <https://doi.org/10.59866/eia.v2i68.267>

VALVERDE, Jaime (2013). «Teatrogileek teatroaz: Maite Agirre, Antton Luku eta Ander Lipus», *Euskera* 58: 873-919. <https://doi.org/10.59866/eia.v58i2.167>

ZUAZO, Koldo (2005). *Euskara batua. Ezina ekinez egina*. Elkar.